


PLaza

44 ■ Jesus Olasagasti ezagutzeoko aukera

Artistaren 100 margolan eta 20 marrazki ditu Donostiako Kutxa Boulevard aretoko erakusketak.



Xabier Amuriza, atzo, Bilbon, *Dinosauroak horizontean* nobela berria aurkezten. MARISOL RAMÍREZ / ARGIAZKI PRESS

Idazlea, denbora galduaren bila

Xabier Amurizak denbora jakin bateko Euskal Herria islatzen duen nobela idatzitako du, memoriatik abiatuta

IRUNE BERRO
Bilbo

«Gutiz fenomeno esplikaezin batetik» abiatu da Xabier Amuriza (Etxano, Bizkaia, 1941) *Dinosauroak horizontean* nobela idazteko. «Fenomeno horretaz konturatzea kostatuko zaio subjektuari. Ez zaio gutxiago kostatuko biziraupena fenomeno irreberzible horretara egokitzea», uste du idazleak; «egoera berritik zaharrentz eta zaharretik berrirantz, diagonalak eta transbertsalak barne, norabide guztiak irekitzen dira, aldi berean abiagune eta helgune den memoriaren bitartez».

Amurizaren memoria horri ez zaio interesatzen gertaerak bere hartan kontatzea, ezta gogoratzen dituen bezala ere. «Soil-soilik iturri bat da, agorrezina zorionez, garabidea ematen duten motiboak bertan aurkitzeko. Motiboak batzuetan gertatuak dira, gehie-

netan asmatuak. Emaizak, betiere, errealtate unibertsal bat islatuko du: denbora zehatz bateko Euskal Herria».

Hain zuzen, hori da Amurizak plazan oraintsu jarri duen literatura lanak jasotzen duena: garai jakin bateko bere herria.

ZAZPI LIBURUKO BILDUMA. Marcel Prousten *A la recherche du temps perdu* (Denbora galduaren bila) bilduma izan du gogoan *Dinosauroak horizontean* idazteko unea. Amurizak ez baitu liburu bakarria egin. Proustek bezala, zazpi liburuk bilduma osatu nahi du, eta dagoeneko, liburu bi idatzi ditu. *Joan ziren* bildumako bigarren obra — ziurrenik, *Kiratsetik ihesi* izenburua izango du — hurrengo udaberrian argitaratuko du Amurizak.

«Argumentu orokor baten barruan, Proustek Paris aristokratikoa, bere oroitzapenak, gogoetak eta bizipenak jaso zituen. Nik ez dut konpartitzen Prousten balioak, baina miresten dut haren idazteko modua, egindako lana. Niri nik bizi dudana mundua interesatzen zait, nik bizi dudana Euskal Herria».

Amurizak nobela egin du, eta bereiztea, modua, geroa eta bestetar-

tekatu ditu. Liburuan bere oroitzapenak balio handia dutela dio, baina obra autobiografikorik ez duela egin ziurtatu du. «Gauzak ez ditut

■ LIBURUA



- **Izenburua:** *Dinosauroak horizontean*.
- **Egilea:** Xabier Amuriza.
- **Generoa:** Nobela.
- **Orrialde kopurua:** 392.
- **Argitaratzailea:** Xabier Amuriza.
- **Azalaren diseinatzailea:** Gotzon Garraizabal, Rosalinda Incardonaren irudiekin.

«Prousten balioak ez ditut konpartitzen, baina miresten dut haren lana; nire munduari buruzkoa egingo dut nik»

XABIER AMURIZA
IDAZLEA

kontatu izan diren bezala. Memoriatik motiboak hartu ditut, eta horiek garatu. Baina beti islatuko dute nik bizi izan dudana Euskal Herria. Oso erraz identifikatu ahal izango da hori liburuan. Alegia, ez naiz kokatu ez New Yorken, ezta beste hiriburu edo irla batean ere. Hemen kokatu naiz, baina horrek ez du esan nahi kokapen horretatik mundu guztira joan-etorriak egin ezin ditzaizkadanik. Euskal Herria izan da nire tokia, esparrua eta lehengaia nobela egiteko. Nire bizialdi guztia da ardatza, baina hortik hainbat tokitara joango naiz, Greziara, dinosauroen arora, eta etorriko diren aro guztietara. Hor ibiliko da nire kontakizuna. Eta obraren prentisioa literarioa izango da guztiz».

Dinosauroak horizontean nobela, haurtzaroko gertakari eta gogomutak bildu ditu Amurizak. Baita seminarioan eman zituen urteetakoak ere. Orduko Euskal Herrikoak. Eta *Kiratsetik ihesi* hurrengo nobela, halaber, urte haietako Euskal Herria islatuko du idazleak. Baina hirugarrenean beste aro batera helduko dela aurreratu du. «Hirugarren nobela etorriko dira apaiz izan nintzen garaiko gauzak. Etorriko dira, beharbada, gertaera

politikoak, baina nire helburua ez da gertaera politiko horien kronika egitea. Baliatzen ditut batzuetan, korrosio bat egiteko, ironia bat egiteko edota sentimendu bat adierazteko», azaldu du.

Joan ziren izeneko bilduman idatzitako dituen obrak «Euskal Herriatik mundura» eginikoak izango direla dio Amurizak. Idazlearen arabera, «Euskal Herrian mundu guztia dago, eta pertsona baten baitan mundu guztia dago». Horregatik, kontakizuna Euskal Herrian kokatuta hasi du. Haatik, bilduman aurrera egin ahala, kontinente guztietatik pasatzeko asmoa dauka Amurizak, berriro ere Euskal Herria itzultzeko, bilduma herrian bukatzeko. «Ez bakarrik Euskal Herrian gertatutakoa, munduan XX. mendean gertatutako aldakuntzak izugarriak izan dira; horrenbesteko aldakuntzarik ez da izan ezta erromatarren garaitik hona ere». Horren guztiaz gainera, an eraiki nahi du bilduma.

BERE KABUZ ARGITARATU DU. Bere kabuz argitaratu du *Dinosauroak horizontean* hasi berri duen saileko lehen lana, «errebeldia azkeneraino eramateko» helburuarekin. «Azken fasera» iritsi dela dio, eta «lehen liburua ordaintzeko adina diru» izan duela. Balea ekoizpen etxeko lagunek, gainera, abentura horretan lagundu diote. Haatik, Amurizak ezin du ziurtatu bildumako gainerako obrak bere kabuz argitaratuko dituenik. «Ez dut zulo handiegia egin nahi», adierazi du.

Bertsolaritzari buruz esan beharrekoak *Enaz banaz* liburuan esanda utzi zituela dio. Baina erretiroa hartu arte buruan hainbat gauza izan ditu bueltara, gogoeta asko, pasadizo ugari. Eta, behin erretiratu, hori guztia «ordenatzen, kentzen eta gehitzen» joan da, harik eta liburu bi idatzi dituen arte. Metodo horri jarraitu dio *Joan ziren* bildumako lehen bi nobelak idazteko. «Beharbada, ez da metodorik egokiena, baina ezin zuen beste modu batekoa izan nire bizimodu dispartsoan», esan du. Orain konzentratzeko eta zentratzeko astia izango duela badaki, eta hirugarren liburuari, horrenbestez, beste modu batera helduko diola uste du. Hots, beste metodo bati seguita sortuko duela nobela berria.

Alabaina, euskara mailari dagokionez, aldaketarik ez da izango liburu batetik bestera. *Dinosauroak horizontean* nobela AEKren Bilbo Kalderepeko kultur gunean aurkeztu du Amurizak, baina ikasleei emateko moduko liburu ez dela ohartarazi du. «Euskaraz neurri ahalmena iristen den neurriaraino idatzi dut, hori ulertzeko irakurleak badaudela suposatutik».